










INFAC BULETINAREN IRITZI-INKESTAREN EMAITZAK

2024ko urtarrilean inkesta bat egin zen, **INFAC buletin farmakoterapeutikoari buruzko iritziak jasotzeko** eta haren hainbat alderdiri buruzko balorazioa ezagutzeko. Inkesta posta elektronikoz bidali zitzairen Osakidetza osasun-profesional guztiei eta INFAC buletina jasotzen duten kanpoko harpidedunei. 1.357 erantzun jaso dira: **% 50 medikuntzako profesionalenak, % 26 erizainenak, % 5 farmaziakoak eta % 19 bestelakoena.**


10 iritzi-galdera egin ziren (8 erantzun itxiekien eta 2 irekiekin) eta filiazio profesionaleko beste bi galdera. Hona hemen jasotako emaitza nagusien laburpena:



INFACen diapositiben aurkezpenei dagokionez.



Zein da INFAC buletinaren zure balorazioa orokorra? (1 balorazio okerrena; 5 balorazio onena).



ERREDAKZIO BATZORDEAREN IRUZKINAK

Inkestaren emaitzek berresten digute INFAC buletinaren erabilgarritasuna eta onarpen ona gure irakurleen artean. Zehazki, garrantzitsua iruditzen zaigu honako alderdi hauek nabarmentzea:

- Erantzuten duten profesionalen ehuneko handi batek (**% 92**) uste du INFAC informazio-iturri oso edo nahiko erabilgarria dela farmakoterapian eguneratuta egoteko.
- **% 50ek** baino gehiagok dio INFACek askotan edo nahiko maiz laguntzen diola erabaki terapeutikoak hartzen.
- **% 96k** uste du INFACek ematen duen informazioa oso edo nahiko objetiboa dela.
- INFACen balorazio orokorra, erantzunen **% 88an**, 4 eta 5 artekoa da (1 eta 5 bitarteko eskala).

HOBETZEKO ARLOAK

Buletina edozein alderditan hobetzeko (aurkezpena, gaia, aldizkakotasuna...) irakurleen iradokizunak jasotzeko egindako galdera irekian, 338 erantzun jaso dira, eta horietatik 190ek iradokizunak jasotzen dituzte. Jarraian adierazgarrienak laburbiltzen ditugu, eta ahal den neurrian txertatzen saiatuko gara:

- Formatua egokitzea irakurketa errazteko: irudi, grafiko, algoritmo... gehiago txertatzea.
- Buletin guztietan "funtsezko ideiak" edo laburpen bat sartzea.
- Lehen Mailako Arretako patologiarik ohikoenak aldi berean berrikustea.
- Pediatriarako interesgarriak diren gaiak maizago jorratzea.
- Beste lanbide-profil batzuetarako interesgarriak diren gaiak jorratzea (erizaintza, BAME, BAFE, BAIE...).
- Diapositiben aurkezpenaren formatua hobetzea, erakargarriagoa izan dadin.
- Buletinaren difusioa sare sozialetara zabaltzea.
- Jorratzea nahiko zenituzketen gaiei buruzko iradokizunak jaso dira eta hurrengo buletineta lehenetsiko dira.

Azkenik, Erredakzio Batzordeak eskerrak eman nahi dizkizuegu inkestan egindako balorazioengatik eta iradokizunengatik, zalantzarik gabe kontuan hartuko baitira, eta gogorarazten dizuegu zuen iritziak "infac@osakidetza.eus" postaren bidez helarazi ahal dizkiguzuela hobetzen jarraitzen baitigute.



<https://www.euskadi.eus/informazioa/infac-buletina/web01-a2cevime/eu/>

Erabat debekaturik dago dokumentu hau promozio helburuetarako erabiltzea

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

